

## JAUNAREN BATEOA

### I. IRAKURGAIA

*Hona, nire zerbitzaria,  
atsegin jatan nire aukeratua.*


#### **Isaias Profetearen liburutik** (Is 42, 1\_4. 6\_7)

Hauxe dino Jaunak:  
«Hona nire zerbitzaria, Nik eusten deusodana,  
nire aukeratua, atsegin dodana.  
Honegan ipini dot neure espiritua:  
zuzenbidea ekarriko deutse herriei.  
Ez dau oihu egingo, ez ahotsa goratuko,  
ez dau kaleetan entzunazoko bere berbea.  
Kanabera arrakaldua ez dau hausiko,  
Ozta-oztaz biztuta dagoan argi-metxea ez dau amatauko.  
Zuzenbidea ekarriko dau leialki;  
ez dau etsiko, ez da hausiko,  
zuzenbidea lurrean ezarri arte;  
uharteak haren irakaspenen zain dagoz.  
Nik, Jaun honek, salbamen-ekintzarako dei egin deusut,  
eta eskutik heldu;  
Neuk eratu zaitut eta izendatu  
herriarentzat itun  
eta nazinoentzat argi izateko,  
itsuen begiak zabaldu dagizuzan,  
giltzapetuak espetxetik  
eta ilunpetan bizi diranak kartzelatik atara dagizuzan».

#### ERANTZUN SALMOA Sal 28, 1\_2. 3ac\_4. 3b eta 9c\_10

#### **R/. Bere herria bedeinkatuko dau bakea emonez Jaunak.**

Udaria'15 JAUNAREN BATEOA /B Ps 28



Be-re he-ri - a be -dein-ka - tu - ko dau ba -ke- a e -mo - nez Jau - nak.

Emon Jaunari, jainkozko izakiok,  
emon Jaunari ospe eta indar,  
emon Jaunari bere izenaren ospea.  
Ahuspeztu Jaunaren aurrean, Bera santutasunez agertzean.

Jaunaren ahotsa ur gainean,  
Jauna ur handien gainean.  
Jaunaren ahotsa indartsu,  
Jaunaren ahotsa dirdaitsu.

Jainko ospetsuak trumoia jo dau,  
Haren tenpluan danek oihuka dinoe: Gora!

Uholdearen gaineratik dago Jauna jesarrita,  
tronuan jesarri da Jauna betiko errege.

## II. IRAKURGAIA

*Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz  
igurtzi eban Jesus.*

### **Apostoluen Eginak liburutik** (Eg 10, 34\_38)

Egun hareetan honan berba egin eban Pedrok: «Orain jabetzen naz benetan Jainkoak ez dauala bereizkeriarik egiten, begirunea deusana eta Beraren guraria egiten dauana onartzen dauala baino, edozein herritakoa dala ere. Harek bere berbea bialdu eutsen israeldarrei, guztien Jauna dan Jesu Kristoren bidez bakearen Barriona iragarritz. Badakizue zer jazo zan, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek iragarri eban bateoaren ondoren: Nazareteko Jesusena, hain zuzen ere: Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz igurtzi eban, eta Harek on egiten eta deabruak hartutako guztiak osatzen igaro eban bere bitzta, Jainkoa beragaz eban-eta».

## EBANJELIOA

*Zu zara nire Semea, nire Maitea;  
Zeugan dot neure atsegina.*

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Markosen liburutik** (Mk 1,7\_11)

Aldi hareetan, honan iragarten eban Joan Bateatzaileak: «Nire ondoren dator ni baino ahaltsuagoa dana, eta ni ez naz inor makurtu eta haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere. Nik urez bateatu zaituet; Harek, ostera, Espiritu Santuaz bateatuko zaitue».

Egun hareetan, Galileako Nazaretetik etorri zan Jesus, eta Joanek Jordanen bateatu eban. Eta berehala, uretatik urteterakoan, zerua urratzen ikusi eban Jesusek, eta Espiritu Santua uso-irudian bere gainera jaisten. Eta berba hau etorri zan zerutik: «Zeu zara nire Semea, nire maitea; Zeu zaitut atsegin».